astiberri

7 URTETIK AURRERA



OREKAKO BASOA 1
GAU LUZE BAT

Gidoia eta Irudiak: **Paco Sordo**
Itzulpena: **Bego Montorio**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2026
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
208 orrialde. 17 x 22,8 cm. 20 euro
Txikiberri bilduma
ISBN euskera: 978-84-10332-95-9

MAIATZAREN 21EAN SALGAI

Paco Sordo, *El pacto* lanarekin Espainiako Komikiaren **Sari Nazionala** irabazitakoa, haurrentzako komiki batekin datorkigu Astiberriren eskutik; France 3 telebista katean adierazi zuten moduan: "**fantasiako** ipuin bat da, **poesia** eta **umorez** betea, **ekologia**-dosi zenbaitekin gozoki ondua"

Ipuin ez hain klasiko bat

Kalekumea da Hannah txikia, eta, lehen aldiz, aitonarekin bakarrik pasatu behar du uda. Aitona baso harrigarri bateko zaintzailea da: zuhaitzak paseatzera joaten dira aspertzen direnean, animaliek hitz egiten dute, 120 urteko gnomoek nerabezaroaren krisia dute... Arazo bat badago, ordea, Basoko Izpirituak argi uzten baitu lehen egunetik ez duela neskatila bere lurraldean nahi, eta, amorruaren amorruz, amaierarik gabeko gauean murgilduko du basoa. Lagun berriekin batera, basoko izpirituen bila abiatuko da Hannah, errespetatu ezean arriskutsua izan daitekeen natura aztoratzaile hori baretzen saiatzeko.

ASTIBERRI
astiberri.com
facebook.com/astiberri @astiberri.com @astiberri.infantil astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

Paco Sordo, 2022an *El pacto* lanarekin Espainiako Komikiaren Sari Nazionala eskuratutakoa eta haurrentzako *Niko* komiki sailaren egilea, inor epel utziko ez duen album batekin datorkigu Txikiberri bildumara. Marrazki atsegin eta biribilduekin (aitonaren tripa, Hannahren begiak, txerrinfinituaren pertsonaia...), kolore biziekin (neoi koloreko mamuak!) eta antzinako grabatuen modura apaindutako orrialde ederrekin, suspense handiko eta ustekabe ugarietako kontakizuna aurkezten digu, Grimm anaien ipuin klasikoak gogora ekartzen dituen horietakoa. Egileak, alabaina, bere ohiko umore absurdoa gehitzen du, eta lehen orrialdeetatik harrapatuko gaituen abentura jostaria ehuntzen du pertsonaia multzo barregarri batekin.

"Fantasiako ipuina, poesia eta umorez betea eta ekologia-dosi zenbaitekin gozoki ondua".

France 3

"Umore guztiz txoroa, batzuetan erabat absurdoa, topaketa gero eta gertagaitzagoak... Benetan, ezinezkoa da barrez ez lehertzea".

The Marsies

PACO SORDOk (El Puerto de Santa María, 1979) animazio ikasketak egin zituen Madrilgo Erkidegoko Zinema Eskolan (ECAM). Espainiako, Erresuma Batuko eta Ameriketako Estatu Batuetako zenbait animazio ekoizpenetan parte hartu zuen 2006tik aurrera. 2010 eta 2014 urte bitartean "Internet, Modo de Empleo" saila argitaratu zuen *El Jueves* aldizkarian, eta 2014tik 2016ra bitartean, "Tebeos Basura" saila *Orgullo y Satisfacción* aldizkarian.

Geroago, umeentzako ilustrazioan zentratu zen, eta AEBetako, Britainia Handiko eta Frantziako merkatuetarako jardun zuen. Berak osorik egindako lehen komiki bilduma, *Niko*, 2020an hasi zen argitaratzen Frantzian, Bayard-en eskutik, eta 2023an, gaztelaniaz, Kómikids-ek plazaratuta. *El pacto* (2021, Nuevo Nueve) nobela grafikoarekin Bartzelonako Komiki Azokako Obra Onenaren Saria eta Espainiako Komiki Sari nazionala irabazi zituen 2022an.

2026 honetan ekin dio bere proiektu berriari, *Orekako basoa* (katalanez eta gaztelaniaz ere eskura daiteke) Astiberriko umeentzako bildumaren barruan.

ZER EGINGO DUT HEMEN LAGUNIK GABE? AITONA ETA BIOK BAKARRIK...
EDERTO IBILIKO ZARA AITONAREKIN. ETA LAGUNAK EGINGO DITUZU, SEGURU!
BAINA... AITONA EZ DA BAKARRIK BIZI?
ñan
ZERAAA... BERAK KONTATUKO DIZU...
?

ZER ESAN NAHI DUZU?
NORA JOAN DIRA AMA ETA AITONA?
ñan!
KONTUZ!!
AAAAAAAARG!!